

## ATEAK ITXITA EGINDAKO ERAKUSLEIHO-POLITIKA

Nagore Gomara: “*Gehiengoaz baliatuta gobernatu dute, laudioarrak entzun gabe*”

Laudio, 2023/03/17. Azken egunotan, EAJ-PSE gobernu-taldeak legegintzaldiko balantzearen aurkezpena egin du, eta, egia esanda, tristura eragin digu.

EAJ-PSE udaletxeko bulegoetan giltzapetu dira, kaleko errealitatearekin bat egin ezinik, eta aihotza ezarri du bere politika guztiatarako. Ez diete auzokideei, ez gizarte taldeei ez oposizioko talde politikoei entzun. Edozertarako izan duten lankidetza falta izugarriaren ikusle izan gara, berea ez den ahots orori entzungor eginez. Eta hau guztia, geldotasunak, inertziak eta inprobisazioak gidatuta izan dira. Lau urte gogor herri osoarentzat, alkatzaren bulegoarentzat izan ezik, eta, gainera, harro daude horretaz.

Badirudi, Laudioko gobernu-taldeak, pandemiak ekarritako alderdi txar guztiekin gelditzeko merezimendu zalantzagarria izan duela (geldialdia, inprobisazioa, isolamendua, urruntea, burokrazia) eta ez ekarritako alde onekin (elkartasuna, hausnarketa, lankidetza, bultzada berria, etorkizuneko begirada).

Gogoeta egin eta hori zuzentzen saiatu beharrean, dagoeneko iragarri dute, zenbakiek ematen badiete, hurrengo 4 urteetan berdin jarraituko dutela, eta hori oso larria iruditzen zaio koalizio independentistari.

Bizilagunen sumindura nabaria da. “*Izandako komunikazioa gauzaez izan da eta erabaki guztiak ate itxita hartu dira*” aipatu du Nagorek. Hori bai, ez dira kalera atera entzutera, baina bai argazkia ateratzera, dena den, erakusleihoko politikak nekatu egin du herria.

Gainera, 4 urte hauetan, prozeduretan, moteltasun marka guztiak hautsi dira: 4 urte behar izan dira Antzokiko obrak hasteko; 4 urte Hiri Antolaketako Plan Orokorr berriaren lizitazioa egiteko; gainera, hauteskunde-programan jasotzen zuten San Rokeko adinekoentzako egoitza zaharra, musikaren etxe berria izango zela eta 4 urte geroago abandonatuta jarraitzen du; baserritarrei zaitasunak jarri dizkiete; hiltegia justifikatu gabe itxi dute; Kultura Etxeak legegintzaldi osoa itxita darama kultura-taldeak udalerrian zehar sakabanatz; zinemarik gabe geratu gara, eta erabiltzaile-talde baten inplikazioari esker, zerbitzu hori suspertu egin ahal izan da. Era berean, 4 urte behar izan dituzte haur parkeak eraberritzen hasteko. Ez hori bakarrik, nabarmenzekoa da euskararekiko azaldu duten jarrera, bai aurrekontuetan bai honen sustapenean baita hizkuntza politiketan ere. Hori bai, orain hauteskunde bezperan, herria hankaz gora dago beste argazki bat egiteko.

EH Bilduk mahai gainean dituen erronkak oso handiak dira, eta ezin da denbora gehiago galdu. Eraldaketa energetikoa edo biztanleriaren zahartzea desafio izugarriak dira herri honentzat. Udalaren politika bulego itxi batetik kudeatze hutsera mugatzeak ez du balio. Guztion artean erabaki behar da nola hartuko diren apustu berri horiek. Ez du balio beste aldera begiratzeak, orain arte egin den bezala, eta aurre ez egiteak. Etorkizunari begiratzeko garaia da. Erronkak mahai gainean daude eta EH Bilduk erantzukizunez eta eraginkortasunez aurre egiteko konpromisoa hartu du.

Egiteko beste modu batean sinesten du EH Bildu Laudiok: herritarren lankidetza eta parte-hartze aktiboa ardatz bezala duena. Herritarraren ongizatea erdigunean jartzen duena. Politika kalean egiten duena. Horregatik, gauzak beste modu batera egiteko unea da.

Daukagunarekin ez konformatzeko eta Laudio berpizteko energia guztia emateko unea da. *“Herria bizilagunei itzuliko diegu eta lanean jarraituko dugu”* esanez bukatu du zinegotziak.

## POLÍTICA DE ESCAPARATE HECHA A PUERTA CERRADA

Nagore Gomara: “*Han gobernado en solitario, sin escuchar a la ciudadanía*”

Laudio, 17/03/2023. En los últimos días hemos asistido a la presentación del balance de legislatura por parte del equipo de gobierno PNV-PSE y ciertamente el mismo nos ha causado tristeza.

PNV-PSE se han encerrado en los despachos del Ayuntamiento, incapaces de conectar con la realidad a pie de calle, y han aplicado rodillo para todas sus políticas. No han escuchado ni a las vecinas y vecinos, ni a los grupos sociales y ni a los grupos políticos de la oposición. Hemos asistido a una enorme falta de colaboración para absolutamente todo, haciendo oídos sordos a cualquier voz que no sea la suya propia. Todo ello, guiado por la lentitud, la inercia y la improvisación. Han sido cuatro años duros para todo el pueblo, excepto para el despacho de la alcaldía, y encima, se jactan de ello.

Parece que el equipo de gobierno de Laudio, ha tenido el dudoso mérito de quedarse con todo lo malo que nos trajo la pandemia (paralización, improvisación, aislamiento, distanciamiento, burocracia) y con nada de lo bueno (solidaridad, reflexión, colaboración, nuevo impulso, mirada de futuro).

Lejos de reflexionar e intentar corregir esto, ya nos anuncian que, si los números les dan, seguirán igual los próximos 4 años, lo cual es gravísimo.

La exasperación de las vecinas y vecinos es patente. “*La comunicación ha sido nula y todas las decisiones se han tomado a puerta cerrada*” ha mencionado Gomara. Eso sí, no habrán salido a la calle a escuchar, pero sí a sacarse la foto, pero la política de escaparate acaba por cansar al pueblo.

Además, en estos 4 años se han batido todos los récords de lentitud en los procedimientos: 4 años han necesitado para iniciar las obras del anhelado Antzokia; 4 años para hacer la licitación del nuevo Plan General de Ordenación Urbana; prometieron en su programa electoral que la antigua residencia de mayores de San Roque sería una nueva casa de la música, y sigue abandonada 4 años después; han dificultado la venta en los mercados de baserritarras; han cerrado sin justificar el matadero; la Kultura Etxea lleva cerrada toda la legislatura desperdigando así a los grupos culturales por el municipio; Laudio se quedó sin cine y gracias a la implicación de un grupo de personas usuarias se ha reactivado este servicio. Asimismo, han necesitado 4 años para empezar a reformar los parques infantiles...No sólo eso, cabe destacar su actitud hacia el euskera, tanto en los presupuestos como en su fomento y también en las políticas lingüísticas. Eso sí, ahora en vísperas electorales el pueblo está patas arriba lleno de obras... otra foto más.

EH Bildu cree que los desafíos que tiene sobre la mesa son de semejante dimensión que no podemos permitirnos el lujo de perder más tiempo. La transformación energética o el envejecimiento de la población, son retos enormes para este pueblo. No sirve limitar la política del Ayuntamiento a la mera gestión desde un despacho cerrado. Debemos decidir entre todos y todas cómo vamos a asumir estos nuevos retos. Tampoco vale

mirar hacia otro lado como se ha hecho hasta ahora y no hacerles frente. Es hora de mirar al futuro. Los retos están encima de la mesa y EH Bildu asume el compromiso de hacerles frente con responsabilidad y eficacia.

EH Bildu cree en otra forma de hacer: la que tiene como eje la colaboración y participación activa de la ciudadanía. La que pone el bienestar de la ciudadanía en el centro. La que hace política en la calle. Por eso es el momento de hacer las cosas de otra manera.

Es momento de no conformarse con lo que tenemos y poner toda la energía en relanzar Laudio entre todas y todos. “*Vamos a devolver el pueblo a los vecinos y vecinas y seguiremos trabajando*” ha finalizado Nagore.